

16

innobai:

innovando:bizkaia:barritzen


bai.bizkaia.net



Iritzia Sormenaren hiru ikur Gordon Torr	04	Opinión Tres emblemas de la creatividad Gordon Torr
Elkarrizketa Santiago Rementería Grupo Artech	08	Entrevista Santiago Rementería Grupo Artech
Iritzia Haiek egin bazuten, zeuk ere ahal duzu Juanjo Brizuela	12	Opinión Si ellas pudieron, tú también puedes Juanjo Brizuela
Elkarrizketa Alfonso Albaisa Nissan Design Europe	16	Entrevista Alfonso Albaisa Nissan Design Europe
Berritzen ErgoHobe	20	Innovando ErgoHobe
Iritzia Antolaeraren konstelazioak Guillermo Echegaray	22	Opinión Constelaciones organizacionales Guillermo Echegaray
BAI jarduerak	25	Actividades BAI
Leihoa	26	Tragaluz
Liburuak	27	Libros

© Azala / Portada: Vicente Paredes

Koordinatzailea / Coordinador: Juan Carlos Totorikaguena
Erredakzioa / Redacción: María José Martín-Granizo
Euskera: Karlos Santisteban
Maketazioa / Maquetación: Borja López de Guereñu



innobai:

innovando:bizkaia:barritzen

:b:a:i:

berrikuntza agentzia
agencia de innovación



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Sabino Arana, 8. 48013 Bilbao
Tel.: +34 94 439 56 22 Fax: +34 94 427 80 05
innobai@baibizkaia.net

Legezko gordailua / Depósito legal: BI-1788-06
Bizkaia 2010



Berrikuntzaren periferia

La periferia de la innovación

Testua eta irudia / Texto y fotografía:
Juan Carlos Totorikaguena

Ez da perfektua berrikuntzaren inguruan dagoen guztia. Izan ere, huts egitea berez-berezkoa da bere prozesuan. Dena dela, kostatzen zaigu onartzea eta zur eta lur gelditzen gara arrakastaren ikono liluragarriei begira. Azken produktu landu eta makillatuaren distira xuriarekin gogatzeari nahiago dugu, haren sorbideak sortarazi dituen hondakinei begiratzea saihestuz. Bikaintasunaren periferian sistemak erabili dituen baina orain baliagarritzat jotzen ez dituen elementuak eta baliabideak metatzen dira eta ez zaie garaipenaren mozkin eta onuretan parte hartzen uzten.

Argazkian agertzen den musikariaren historia pertsonalarekin hausnartuz, agian musikari ospetsuek osatutako talde baten barruan egon zela bururatu zait, Ekialdeko Europan behin izan ziren erregimenek beren porrotaren soinu banda interpretatzeko erabili zituztenetarikoa batean hain zuzen.

Merkatu berriak bilatzera derrigortuta, honek bezalaxe beste askok ere beste lurralde batzuetara alde egin zuten, beren trebetasunez baliatzeko aukera izango zutelakoan. Baina ez ziren konturatu hemen ez dugula gustukoa entzutea. Geure baitan bilduta jarraitzen dugu, gure kaskoek ematen diguten babespean, gure mp3an biltzen ditugun gigabyteak irensten, musikari buruzko eztabaidetan buru-belarri. Kanpoan jotzen dutenari adi egon beharko genuke, doinu interesgarriren bat entzun liteke-eta.

No todo lo que rodea a la innovación es perfecto. De hecho, el error forma parte intrínseca de su proceso. Sin embargo, nos resistimos a aceptarlo y permanecemos absortos contemplando los iconos deslumbrantes del éxito. Preferimos deleitarnos con el brillo adulador y reconfortante del producto final, pulido y maquillado, evitando mirar los residuos que ha provocado su gestación. En la periferia de la excelencia se hacinan los elementos y recursos que el sistema ha utilizado, pero que ya no considera útiles y a los que no permite participar de los beneficios y las prebendas del triunfo.

Especulando con la historia personal del músico de la fotografía, imagino que formó parte de una estructura integrada por eminentes músicos, que regímenes extintos del Este de Europa utilizaron para interpretar la banda sonora de su fracaso.

Abocados a buscar nuevos mercados, muchos como él recalaron en territorios en los que creyeron adivinar una oportunidad para beneficiarse de sus habilidades. Pero no fueron conscientes de que aquí somos reacios a la escucha. Seguimos abstraídos, bajo la protección que nos ofrecen nuestros cascos, consumiendo los gigabytes que acumulamos en nuestro mp3 y enfrascados en discusiones sobre la crisis de la música. Deberíamos prestar atención a lo que tocan fuera, puede sonar una melodía interesante.

Sormenaren hiru ikur

Tres emblemas de la creatividad

Gordon Torr

Unfactoryko zuzendari gerentea
Director gerente de The Unfactory
<http://gordontorr.com/>



Zer dute elkarrekin zerikusirik Avatar-ek, iPad-ek eta Bilboko Guggenheim museoak? Pertsona sortzaileen kudeaketan espezializatutako The Unfactory enpresaren sortzailea eta Bizkaia Creaktiva-ren bigarren edizioan hizlaria izan den Gordon Torr-ek dioenez, sormenaren adibide dira, berritasun esanguratsuak ekartzen dituzten lanak, garapen osoan "artistaren antolaera" k lehentasuna duenean baino lortzen ez dena.

¿Qué tienen en común Avatar, el iPad y el Guggenheim Bilbao? Según Gordon Torr, fundador de The Unfactory, empresa especializada en la gestión de personas creativas, y ponente de la II edición de Bizkaia Creaktiva, son ejemplos de creatividad, trabajos que aportan novedades significativas, algo que sólo se consigue cuando durante todo su proceso de desarrollo ha prevalecido la "organización del artista".

Frank Gehry dioenez enpresariak pertsona sortzaileak honelaxe tratatu ohi dituzte: “Geu gara negozioiak egiten dakigunak, zuk emaguzu diseinua eta ahaztu zaitez gainerakoaz”. Hala ere, berak uste du amaierako produktua nahi den objektura –hau da, bezeroak eta sortzaileak erabaki duten diseinura ahal den gehien hurbil dadin– beharrezkoa dela ekoizpen prozesu guztian lehentasuna artista-aren antolaerak izatea.

Jarraian oztupo guztien kontra sortzailearen antolaerari lehentasuna ematean arrakasta lortzearen hiru adibide azaltzen dira.

Hiru sorlan entzutetsu eta eztabaidatsu

Artikulu hau idazten ari naizenean Avatar gehien ikusten den filma da 25 herrialderen historian, nahiz eta horrek ez duen derrigorrez haren kalitatearekin zerikusirik izan behar. Nik neuk ez dela txarra uste dut eta harrigarria dela azpimarratu behar dut. Zalantzarik gabe jendearen sentikortasuna hunkitu du. Interneten Avatazaleen historiak daude eta Pandoraren osteko depresioa jasaten ari omen dira: dirudienez, Cameronek sortu duen panteista urdinen planeta hain da erakargarria eta ederra XXI mendeko Lurrarekin alderatuta, non ikusleatariko askok bertara bizitzera joan nahi duten eta gogor egiten zaie fikzioa besterik ez dela onartzea.

Apple-en iPad-en merkaturatzeak ere zabalkunde izugarria izan du, nahiz eta ez den kasu guztietan ona izan. *Engadget.com*ek –kontsumo elektronikaren erreferentziako weba da– iritzi orrialdeak itxi behar izan zituen Applezaleek, iPaden funtzionalitate urriekin haserre, beren iruzkinetan isurtzen zituzten sulfuro azido ibaiak geldiarazteko. Bitartean, YouTubeen Steve Jobs-ek iPad aurkezteko jarrিতako bideoak orain arte soilik milioi erdi ikustaldi izan ditu eta, aldiz, *Hitler responds to the iPad* izenekoak, parodia oso pozoitsua denak, hiru milioi ikustaldi inguru izan zituen argitaratu eta astebeteko epean. IPadek izan duen zabalkundeak gehienbat komunikaziozaleen elitearen eskutik etorri da. Hartzailero murrizta izan daiteke, baina haren eragina egundokoa da eta une honetan haietako asko Pandorazaleak bezain zapuztuta daude.

Bilboko Guggenheim Museoaren kontra daudenek hondamendi estetikoak dela argumentatzen dute, ez duela bere inguruarekin bat egiten, ez duela loturarik hiriaren arkitektura ondarearekin eta itsasadarrari bizkar emaneko jarrিতa dagoela. Iritzi pertsonalak alde batera, ezin da ukatu egitura honek Bilbo nazioarteko nolabaiteko iluntasunetik atera duela eta kultura globalaren ikur bihurtu duela. Hori baliagarria izan da eraikitzea erabaki zuten hiriko agintarien arte ausardia ezagutarazteko eta herri osoa planetako kultura abangoardiaren artean kokatzeko.

Frank Gehry afirma que los empresarios tienden a tratar a las personas creativas de la siguiente forma: “Nosotros somos los que sabemos hacer negocios, tú danos el diseño y olvídate del resto”. Sin embargo, él defiende que para que el producto final se acerque lo más posible al objeto de deseo –es decir, al diseño que han acordado el cliente y el creador– es necesario que prevalezca la organización del artista durante todo el proceso productivo.

A continuación se describen tres ejemplos de cómo se cosechan éxitos al hacer prevalecer la organización del creador, contra viento y marea.

Tres creaciones clamorosas y polémicas

En el momento de escribir este artículo, Avatar es la película más taquillera de la historia en 25 países, lo cual no está necesariamente relacionado con su calidad. Personalmente, opino que es mala, con especial énfasis en la espectacularidad. Lo que no se puede negar es que ha tocado la fibra sensible del público. Por Internet circulan historias de fans de Avatar que sufren una depresión pos-Pandora: al parecer, el planeta de los panteístas azules que ha creado Cameron



© Guggenheim Bilbao

es tan absorbente, tan rematadamente bonito en comparación con la Tierra del siglo XXI, que muchos espectadores están desesperados por irse a vivir allí y luchan por aceptar la implacable realidad de que todo es una ficción.

El lanzamiento del iPad de Apple ha tenido una repercusión igualmente espectacular y no en todos los casos buena. *Engadget.com*, la web de referencia para la electrónica de consumo, tuvo que cerrar sus páginas de opinión para detener los ríos de ácido sulfúrico que vertían en sus comentarios los amantes de Apple, furiosos por la limitada funcionalidad del iPad. Mientras que en YouTube el vídeo de Steve Jobs presentando el iPad ha conseguido hasta el momento solamente medio millón de vistas, el vídeo titulado *Hitler*

soilik egileak ekar ditzake esanguratsutzat jotzen diren nobedadeak. Ez dira nahitaez onak izango, ezta beti baliagarriak ere; hala ere sortzeko bide honen alternatibak soilik erdipurdiko obrak ekar ditzake, onargarriak baina monotonoak

sólo el autor puede aportar novedades significativas. No serán necesariamente buenas, ni siempre resultarán útiles; sin embargo, la alternativa únicamente puede traer consigo obras mediocres, monótonamente aceptables

Urtero ehunka gailu elektroniko berri merkaturatzen da, milaka eraikin publiko egiten dira eta hainbat eta hainbat film, telebista saio eta bideo estreinatzen edo emititzen dira. Batzuei egundoko harrera egiten die jendeak, beste batzuk baliagarriak dira, badira interesgarriak direnak, zenbaitek kritikaren onespina jasotzen dute; baina haiek gehienek nekez sortzen dute Google Trends-en ohar daitekeen begi-ñikaterik. Hala ere, Guggenheimek, iPadek eta Avatar-ek harrera handia izan dute hainbat komunitatan, une ezberdinetan eta hainbat arrazoirengatik. Hiru adibideok eztabaida grinatsuak sortarazi dituzte –beti arrazionalak edo arrazoitsuak izan ez direnak– eta iritziak polarizatzea eragin dute. Orain arte behintzat, hirurok monumentuak dira irudimen publikoaren esparruan.

Esanguratsuak eta berriak, sortzaileak beraz

Avatar, iPad eta Guggenheim sortzeko izan prozesuari erreparatuz gero, sormenaren eredu dira, son Charles Lumsden-ek kontzeptuari buruz egin zuen definizioaren baldintzak betetzen dituztelako “pertsonen esanguratsutzat jotzen duten zerbait sortzeko gaitasuna”. Managing Creative People n sakonago adierazi nuen zergatik nire ustez definizio hau beste batzuk baino zorrotzagoa den. Beste definizioek egokitzearen nolakotasuna azpimarratu ohi dute; oster, sormena, sarritan –beti horrelaxe dela esan liteke– jende garaikideari ezegokia gertatzen zaion eran agertzen da.

Berritasuna ere ezinbestekoa da sorkuntzarako, baina ez da nahikoa. Soil-soilik denborak erabaki dezake uneko nobedeari ematen zaion esanahia azkenean transzendentzia iraunkorra izango duen, unibertso osoan maisu lantzat jotzen diren kultura sorkuntzena alegia.

Nire iritzi segur aski ez Avatar ez iPad erakutsiko dira Guggenheimeko XXI. mendeko artelan handiei buruzko atzera-begirako erakusketa batean. Halaber, baliteke Bilboko jendea zenbait urte barru Gehry-ren eraikina ikusten aspertzera eta astean zazpi egunetan Pandorara itzultzea, I-XXII bolumenak ikusi ahal izateko bezain handia izango den hiru dimentsioko multizine areto bat eraikitzeo erais-tea. Oraingoz horrek ez du axola.

responds to the iPad, una parodia profundamente corrosiva, se aproximaba a los tres millones, menos de una semana después de publicarse. La mayor parte del bombo que ha recibido el iPad proviene de la elite de adictos a los medios de comunicación. Puede ser una audiencia reducida, pero su influencia es enorme y, en este momento, muchos de ellos se encuentran tan decepcionados como los amantes de Pandora.

Los detractores del Museo Guggenheim Bilbao argumentan que es un desastre estético, que no encaja con su entorno, que se desentiende del legado arquitectónico de la ciudad y que está ubicado de espaldas a la ría. Opiniones personales aparte, no se puede negar que esta estructura ha rescatado a Bilbao de una relativa oscuridad internacional y la ha convertido en un estandarte de la cultura global, lo cual ha servido para dar a conocer el atrevimiento artístico de los prohombres de la ciudad que lo encargaron y para que el país entero sea reconocido como parte de la vanguardia cultural del planeta.

Cada año se lanzan al mercado cientos de dispositivos electrónicos nuevos, se encarga la construcción de miles de edificios públicos y se estrenan o emiten multitud de películas, programas de televisión y vídeos. Unos tienen una excelente acogida popular, otros son útiles, los hay interesantes, algunos son aclamados por la crítica; pero la inmensa mayoría de ellos difícilmente provoca un parpadeo perceptible en Google Trends. No obstante, el Guggenheim, el iPad y Avatar han captado una atención importante por parte de diferentes comunidades, en distintos momentos y por motivos dispares. Los tres ejemplos han sido capaces de generar apasionados debates, que no siempre han sido racionales o razonables, y han provocado opiniones polarizadas. Al menos hasta el momento, los tres son monumentos en el ámbito de la imaginación pública.

Significativas y novedosas, por tanto, creativas

Atendiendo al proceso por el que fueron concebidos y elaborados, Avatar, el iPad y el Guggenheim son ejemplos de creatividad, ya que cumplen las condiciones planteadas por Charles Lumsden en su definición del concepto: “una capacidad para concebir algo que las personas consideren significativo”. En Managing Creative People ahondé sobre los motivos por los que considero que esta definición es más rigurosa que otras. Las definiciones alternativas suelen poner el énfasis en el rasgo de la adecuación; sin embargo, la creatividad, con frecuencia –incluso podría decirse que invariablemente–, se expresa de una forma que al público contemporáneo le resulta inadecuada.

La novedad también es un requisito para la creatividad, pero resulta insuficiente. Únicamente el tiempo puede decir si la significación que se le asigna a la novedad del momento terminará convirtiéndose en una trascendencia duradera, la que contienen los ingenios culturales universalmente reconocidos como obras maestras.

En mi opinión, es improbable que Avatar o el iPad acaben en una retrospectiva del Guggenheim sobre las grandes obras del siglo XXI. Igualmente, es posible que la buena gente de Bilbao acabe cansada de visitar el edificio de Gehry en unos cuantos años y que lo derriben para construir una sala multi-



© 20th Century Fox

Avatar, iPad eta Guggenheimen baterako benetako ezaugarri nabarmenena, denboraldi batean sortu dituzten grinez aparte, jatorrizko sorburutik behin betiko ekoizpena arte izan duten bilakaeran Frank Gehryk artistaren antolaera deitzen duena da, hau da, arkitektoak beti bere kontratuetan eranstean duen klausula, hain zuzen ere ideiarren sortzaileak, artistak, eraikuntzaren bitartean diseinuaren kontrola ziurtaturik duela bermatzeko, politikariek eta enpresariek azken emaitzan duten eragina nahita zokoratuz.

Jakina, ez da kasualitatea historiako filmik ikusienak behin betiko bertsiora heldu arte filma ekoizteko beharrezkoak diren baliabide guztiak kontrolatu ahal izateko eragina duen pertsona batek idatzita, ekoizta eta zuzenduta egotea; ez da txiripa ere iPad merkaturatzea Mac-en milioika zaleen kritikak alde batera uzteko Applen behar beste botere duen pertsona bakarraren nahiei jarraituz egitea.

Soilik egileak ekar ditzake esanguratsutzat jotzen diren nobedadeak. Ez dira nahitaez onak izango, ezta beti baliagarriak ere; hala ere sortzeko bide honen alternatibak soilik erdipurdiko obrak ekar ditzake, onargarriak baina monotonoak.



© Guggenheim Bilbao



© Apple

cine en tres dimensiones, lo suficientemente grande como para exhibir Retorno a Pandora, Volúmenes I a XXII, siete días a la semana. De momento, nada de eso importa.

El rasgo realmente interesante que comparten Avatar, el iPad y el Guggenheim, aparte de las pasiones que han despertado de manera temporal, es que en su evolución, desde la concepción original hasta la producción definitiva, las tres creaciones exhiben lo que Frank Gehry denomina la organización del artista, una cláusula que el arquitecto insiste en incluir en sus contratos para asegurarse de que el creador de la idea, el artista, tiene garantizado el control del diseño durante la construcción, eliminando deliberadamente la influencia de los políticos y los empresarios sobre el resultado final.

Por supuesto, no es casualidad que la película más taquillera de toda la historia estuviese escrita, producida y dirigida por una persona que tiene la influencia para poder controlar todos los recursos necesarios en la producción de la película hasta llegar a la versión definitiva; ni tampoco es casual que el iPad saliese al mercado siguiendo los deseos de la única persona de Apple que tiene el poder suficiente para desentenderse de las críticas de los millones de discípulos de Mac.

Solamente el autor puede aportar novedades que se considerarán significativas. No serán necesariamente buenas, ni siempre resultarán útiles; sin embargo, la alternativa a esta forma de creación únicamente puede traer consigo obras mediocres, monótonamente aceptables.

Grupo Artech

Artech enpresa taldea Mungian sortu zen 1946. urtean, ekipo elektrikoetarako ondasunak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzeko. Haren historian hainbat mugari daude teknologia, antolaera eta merkatuari dagokienean eta horrek agerian jartzen du berritzeko eta besteek baino lehenago gauza ezberdinak egiteko duten etengabeko grina. 2001ean Berrikuntza eta Teknologia zuzendaritza sortzea erabaki zuten eta horri buruz berba egingo digu gaur Santiago Rementería zuzendariak.

Artech es un grupo empresarial fundado en Mungia en 1946, dedicado al diseño, fabricación y comercialización de bienes de equipo eléctrico. Su historia está jalonada de hitos tecnológicos, organizativos y de mercado, algo que explica su permanente inquietud por innovar y hacer cosas diferentes antes que los demás. En 2001 decidieron formalizar una dirección de Innovación y Tecnología sobre la que hoy nos habla su director, Santiago Rementería.



2001etik Artechek zuk zuzentzen duzun Berrikuntza eta Teknologia zuzendaritza dauka. Zergatik erabaki zenuten horretarako berari azantza?

Esango nuke gaur egun berrikuntza deitzen dugunarekin lotuta dauden bi gai daudela, bere sorreratik Artecheren ezaugarri direnak: teknologia bikaintasuna lortzeko gogoia eta merkatutik hurbil egoteko ahalegina. Hori dela-eta gure ibilbidean erabaki berritzaileekin zerikusia duten hainbat mugari daude. 1969an jada, esate baterako, Artechek lehenengo I+D unitatea sortu zuen, Ikaslan zeritzon zentroa, bere arloan aitzindaria izan zena. Hamar urte geroago lehenengo planta ireki genuen atzerrian, Venezuelan, eta garai hartan hau ere nobedadea izan zen. 2001ean, merkatu elektrikoan espero zen bilakaera ikusita, hazteko estrategia ezarri zen, sektorearen barruan jarduera-ildo berriak garatzearen aldeko apustua eginez. Estrategia honen elementu giltzarri legez Berrikuntza eta Teknologia Berrikuntza Zuzendaritza sortzea erabaki zen, haren zeregin nagusia negozio aukera berriak atzematea eta gauzatzeko beharrezkoak ziren gaitasunak eskuratzeko modua definitzea izanik.

Desde 2001 Artech cuenta con una dirección de Innovación y Tecnología que usted dirige. ¿Qué les llevó de articular una organización explícita para ello?

Yo diría que hay dos aspectos clave relacionados con lo que hoy llamamos innovación que identifican a Artech desde su origen: la obsesión por la excelencia tecnológica y el empeño en estar cerca del mercado. Esto ha hecho que nuestra trayectoria esté jalonada de hitos que tienen que ver con decisiones innovadoras. Ya en 1969, por ejemplo, Artech constituyó su primera unidad de I+D, un centro que se llamaba Ikaslan y que fue pionero en su género. Diez años después abríamos la primera planta en el extranjero, en Venezuela, lo cual constituyó otra novedad en aquellos tiempos. En 2001, a la vista de la evolución esperada del mercado eléctrico, se definió una estrategia de crecimiento que apostaba por el desarrollo de nuevas líneas de actividad dentro del sector. Como elemento clave de esta estrategia se decidió crear una Dirección de Innovación y Tecnología cuya misión principal es identificar nuevas oportunidades de negocio y definir la forma de adquirir las capacidades necesarias para materializarlas.

¿Cómo ha sido su evolución en estos 9 años?

Si echamos la vista atrás reconocemos dos ciclos. En el primero de ellos, definimos las líneas estratégicas de diversificación y crecimiento y pusimos en marcha las acciones encaminadas a su implantación, como la capacitación en nuevas tecnologías, el desarrollo de nuevas líneas de negocio y la incorporación al Grupo de nuevas empresas. Durante el segundo ciclo hemos trabajado en la asimilación de estas novedades, lo que ha requerido un esfuerzo organizativo y de cultura empresarial considerable. En estos años nuestro volumen de negocio se ha multiplicado casi por 2.5 y, de la cifra actual, el 30% corresponde a productos y servicios incorporados a partir de 2003, lo que quiere decir que realmente estamos transformando la actividad de la compañía. También las mejoras de competitividad en las líneas de negocio tradicionales han sido notables, manteniéndonos en

Zer-nolako bilakaera izan du 9 urteotan?

Atzera begiratzen badugu ziklo bi ikusiko ditugu. Lehenengoan dibertsifikatzeko eta hazteko ildo estrategikoak definitu genituen eta ezartzeko ekintzak abiatu genituen, esate baterako teknologia berrietan gaitzea, negozio ildo berriak garatzea eta Taldean enpresa berriak txertatzea. Bigarren zikloan berrikuntzok asimilatzen lan egin dugu eta horretarako tamainako ahalegina egin dugu antolaera eta enpresa kulturari dagokienez. Urteotan gure negozio bolumena ia 2,5 bider handitu da eta gaur egungo zifratik %30 2003tik aurrera erantsitako produktu eta zerbitzuei dagokie: horrek esan nahi du benetan baltzuaeren jardura eraldatzen ari garela. Negozio ildo tradizionalen lehiakortasunean egin diren hobekuntzak ere nabarmenak izan dira eta tentsio handiko eta tentsio oso handiko transformagailuen merkatuan munduko hirugarren lekuan gaude. Une honetan Artecheko fabrikatzaile independentea da teknologia, finantza eta kudeaketari dagokienez, bi mila langile ditu eta ehun eta hogeita hamar bat herrialdetan dauka produktua instalaturik.

Enpresan hobetzeko dagoen kulturaz gain, merkatuan gertatzen ari diren aldaketak ere pizgarri handia izango dira

Merkatua bilakatzen ari da eta, horren ondorioz, etengabe adi eta lehiakorrak izaten jarraitzeko bide berriak gartzen egon behar dugu. Gainera, gure negozio inguruan ohartzen ari garen aldaketek eraldaketa sakona iragartzen dute. Etorkizuneko sare elektrikoak oraingoak baino malguagoa, baliagarriagoa, sendoagoa eta eraginkorragoa izan beharko du eta aukera eman beharko du bi noranzkoko fluxuak uanean bertan kudeatzeko eta hornidura fidagarria eta kalitadeduna bermatu beharko du testuinguru berrian, elektrizitate eskaria hazi egingo baita eta erabiltzaileek funtsezko betekizuna izango baitute, garraibideekin bat egitea lortuz. Sare berria gauzatzeko behar diren teknologia aldaketak berrikuntzarako motorra dira guretzat.

Nola prestatzen zarete aldaketoi aurre egiteko?

Egoera honetan funtsezkoa da teknologia eta berrikuntza garatzea. Guri dagokigunez funtzio hau konpartiturik dauka Artecheko Teknologia Zentroaren eta negozio unitateetako talde teknikoan artean. Lehenaren helburua teknologia berriak identifikatzea, ikertzea, eskuratzea eta barruan zabaltea da; gainera, produktu ildo berriak eta taldearen hazkuntza eta etorkizuneko errentagarritasuna bultzatuko duten aukerak ere aztertu behar ditu. Negozio unitateek, berriz, gaur egungo jardueri dagozkien produktu ildo eta teknologia helduei ematen diete lehentasuna. 2009an salmenten guztizko zifraren %5etik gora zeregin teknikoetan baliatu genuen eta %70 inguru I+G+b jardueri dagokie.

Berrikuntzaren kudeaketak ekarri al du aldaketarik berrikuntzaren kudeaketan?

Dibertsifikatzeko estrategia gauzatu zuten hazi egin ginen, ez soilik ikuspuntu kuantitatibotik; negozio ildo eta eredu berriak erantsen ere hazi ginen. Orduan nabari gelditu zen beste era batean artikulatu beharra genuela eta negozio unitateetan oinarritutako antolaera ezarri genuen. Gaur egun Taldearen jardura bost unitatetan banaturik dago eta horietatik hiru jardura berriei dagozkie. Gainera, 2006ko amaieran enpresentzako I+G unitatea sortu genuen.

Zer aldaketa gehiago egon da?

Fabrikatzaile bertikalaren profil tradizionala osatu dugu, produktua osorik diseinatu, fabrikatu eta merkatuzteaz

la tercera posición mundial del mercado de transformadores de medida de alta y muy alta tensión. En este momento Artecheko es un fabricante independiente desde el punto de vista tecnológico, financiero y de gestión, con dos mil empleados y producto instalado en unos ciento treinta países.

Además de por esa cultura de mejora de la empresa, ¿entiendo que los cambios que se están produciendo en el mercado son un acicate importante?

El mercado está evolucionando lo que nos exige estar continuamente alerta y desarrollando nuevas vías para poder seguir siendo competitivos. Además, estamos siendo testigos de cambios en nuestro entorno de negocio que anticipan una transformación profunda. La red eléctrica del futuro deberá ser más flexible, capaz, robusta y eficiente que la actual, permitir flujos de energía bidireccionales gestionados en tiempo real y asegurar un suministro fiable y de calidad en este nuevo contexto en el que crecerá la demanda de electricidad, los usuarios jugarán un papel central y llegará la convergencia con los medios de transporte. Los cambios tecnológicos requeridos para materializar esta nueva red son un motor de innovación para nosotros.

¿Cómo se preparan para afrontarlos?

En estas circunstancias son fundamentales el desarrollo tecnológico y la innovación. En nuestro caso tenemos esta función compartida entre Artecheko Centro de Tecnología, la unidad de carácter corporativo centrada en la I+D a medio plazo, y los equipos técnicos de las propias unidades de negocio. La primera tiene como misión la identificación, exploración, adquisición y difusión interna de nuevas tecnologías, así como el desarrollo de líneas de producto novedosas y la exploración

© Vicente Paredes



gain sistemen integrazioa eta konponbide osoen hornidura eskainiz. Une honetan Artechek, batez ere ekipamendu elektrikoek fabrikatzailea den arren, gainera merkatuari konponbideak eskaintzen dizkie hirugarrenen produktuak eta osagaiak txertatuz eta balioa eranstean du konponbidearen ingeniari, proiektuaren kudeaketa eta lan zibil eta egituren muntaketaren bidez. "Giltza eskuan sistemak" deitzen dugun unitateak azpi-estazio elektriko eta parke eolikoei ematen die lehentasuna; jarduera hau zaila zen gure eskaintzaren barruan imajinatzea duela bost urte eta une honetan soilik Brasilerako mugatuta dagoen arren, Amerikako beste leku batzuetara zabaltzea espero dugu.

Aldaketa hauetariko asko krisiarekin bat etorri dira eta hala ere, aurre egiteaz gain, hazteko gai zarete

Krisiak denongan du eragina, baina gure kasuan merkatu batzuetan izan den beherakada beste batzuen portaera onarekin konpentsatu dugu. Azken urteotan produktu ildo berriak garatzeko eta nazioartean sendotzeko egin dugun ahaleginak jarrera egonkorra izatea ahalbidetu digu. Enpresa globala garenez krisi lokal guztiek eragiten gaituzte, baina aldi berean inpaktua orekatzea lortzen dugu hainbat geografia lekutan eta hazteko joerari heldu ahal diogu, 2009an gertatu den bezala.

Taldean 16 enpresa dauzkan multinazionala zaretenez, arlo honetan izan duzuen esperientziak sarritan galde egingo dizute

Kalitate eta teknologia berrikuntzarekin batera, nazioartekatze goiztiarra –ez merkataritzakoa soilik, ekoizpenekoa ere bai– Artecheren garapenerako ardatzetariko bat izan da. 1946an sortu eta gero, 1973an esportatzeko hasitako estrategia hazteko bide bakarra zen barruko merkatua mugatua zelako. 1979an egin zen nazioarteko lehen ezarpenaren ondoren beste asko etorri ziren. Eta balantzea argi eta garbi ona den arren, egindako bidean gorabeherak izan dira. Ez da beti posible izan bidelagun egokia lortzea edo helburuko enpresak eranstea. Egia esan, gure historian hainbat zuzentze txiki izan dira, batzuetan paperean ezarritakoa gauzatzeko zailtasunak daudelako. Estrategia malgutasunez burutu behar da eta aukerak aprobetxatzen jakin behar da, horixe erakutsi digu eguneroko jardunak.

de oportunidades que favorezcan el crecimiento del Grupo y su rentabilidad futura. A su vez, las unidades de negocio están centradas en las líneas de producto y tecnologías maduras propias de las actividades actuales. En 2009 dedicamos más del 5% de la cifra total de ventas a tareas técnicas, de ella el 70%, aproximadamente, corresponde a actividades de I+D+i.

A nivel organizativo, ¿ha supuesto algún cambio la gestión de la innovación?

La puesta en práctica de la estrategia de diversificación nos llevó a crecer, no sólo desde el punto de vista cuantitativo, sino también con la incorporación de nuevas líneas y tipologías de negocio. Entonces fue evidente que teníamos que articularnos de otra manera y pasamos a ser una organización basada en unidades de negocio. Actualmente, de las cinco unidades en las que se distribuye la operación del Grupo, tres corresponden a nuevas actividades. Además, a finales de 2006 constituimos la unidad de I+D empresarial.

¿Qué más cambios se han sucedido?

Hemos complementado nuestro perfil tradicional de fabricante vertical en el que diseñamos y fabricamos íntegramente el producto que después comercializamos, con otros como el de integrador de sistemas y el de proveedor de soluciones completas. En este momento Artech, aunque sigue siendo fundamentalmente un fabricante de equipamiento eléctrico, también ofrece al mercado soluciones en las que integramos productos y componentes de terceros, llegando a aportar valor con la ingeniería de la solución, la gestión del proyecto e incluso la obra civil y el montaje de estructuras. La unidad de negocio que denominamos de "sistemas llave en mano" está centrada en la construcción de subestaciones eléctricas y parques eólicos, actividad que era difícil de imaginar como parte de nuestra oferta hace tan sólo cinco años, y que aunque en este momento se circunscribe a Brasil, esperamos extender a otras zonas de América.

Muchos de estos cambios coinciden con la crisis, sin embargo no sólo se atreven con ellos, son incluso capaces de crecer

La crisis nos está afectando a todos, pero en nuestro caso hemos compensado el bajón que han experimentado algunos mercados con el buen comportamiento de otros. El esfuerzo realizado en los últimos años por desarrollar nuevas líneas de producto y consolidar nuestra presencia internacional nos ha permitido mantener una posición estable. El hecho de que seamos una empresa global hace que nos toquen todas las crisis locales, pero también que logremos equilibrar su impacto en las distintas zonas geográficas y mantener la tendencia de crecimiento, como ha sido nuestro caso en 2009.

Como multinacional con 16 empresas en el Grupo, supongo que a menudo les preguntarán por su experiencia en internacionalización

Junto con la calidad y la innovación tecnológica, la internacionalización temprana -no sólo comercial, sino también productiva- ha sido uno de los ejes de desarrollo de Artech. Tras su constitución en 1946, la estrategia exportadora iniciada en 1973 se presentaba como la única vía de crecimiento ante el limitado mercado interior. La primera implantación internacional en 1979 fue seguida por muchas otras. Y aunque el balance es claramente favorable, el camino recorrido ha tenido altibajos. No siempre ha sido posible dar con el aliado óptimo o incorporar a las empresas objetivo. En realidad, nuestra historia está jalonada de pequeñas rec-





© Vicente Paredes

Zer gehiago ikasi duzue?

Ondorio orokorra izango litzateke berrikuntzaren kudeaketarako sistema batek funtziona dezan ez dela nahikoa formalizaturik egotea. Hasteko, aldaketa enpresa errealtatearen osagai legez hartu behar da, berrikuntzak maiz negozioaren alderdiren bat eraldatzea baitakar. Esperientziak esaten digu edozein aldaketa egiaz eta koherentziaz onartzeko konpromisoen kultura onartu beharra dagoela, eta hau askotan aldaketa da berez. Horrenbestez, eta kudeaketa aldatetean topikoa denez, funtsezkoa da antolakundearen goreneko eskalan lidergoa izatea. Gainera oso garrantzitsua da arriskuez oharturik egotea eta ez dela dena lehenengo aldian ondo aterako onartzea: berritzeko jokabideak porrot batzuk izatea dakar berez. Egia esan gauza asko ikasi dugu, baina badakizu zenbat diren teknika arlokoak?

Zenbat?

Geure ibilbidean nolabait funtsezkotzat jotzen ditugun gai guztien zerrenda egiten badugu, ikusiko dugu apenas ematen diogula lehenetasunik tekniko hutsak diren gaiei, ezta teknologia berrikuntzei buruz ari garenean ere. Azkenean, berrikuntzan oinarritutako hazkunderako gai nagusiak kultura eta antolaearekin –pertsonekin alegia– zerikusia dutenak izan ohi dira.

tificaciones ante la dificultad que se da a veces de ejecutar lo planteado sobre el papel. Una estrategia hay que llevarla a la práctica con flexibilidad y sabiendo aprovechar las oportunidades, es algo que el día a día nos ha enseñado.

¿Qué otras lecciones han aprendido?

La conclusión general sería que para que un sistema de gestión de la innovación funcione no basta con que se haya formalizado. Para empezar, es preciso asumir el cambio como parte de la realidad empresarial, pues la innovación trae a menudo consigo la transformación de algún aspecto del negocio. La experiencia nos dice que la aceptación real y coherente de cualquier cambio pasa por adoptar una cultura de compromisos, lo cual en muchos casos constituye una novedad en sí mismo. Por consiguiente, y aunque no deja de ser un tópico en los ámbitos de gestión, es fundamental el liderazgo en la escala más alta de la organización. También es muy importante el ser conscientes de los riesgos y admitir que no todo va a salir bien a la primera: la actitud innovadora conlleva algunos fracasos. En realidad hemos aprendido muchas cosas, ¿pero sabes cuántas son de naturaleza técnica?

¿Cuántas?

Si listamos todos los puntos que consideramos clave de alguna forma en nuestra trayectoria, vemos que apenas priorizamos alguno que sea estrictamente técnico, incluso al referirnos a innovaciones tecnológicas. Al final, los temas más relevantes para un crecimiento basado en la innovación suelen ser los relacionados con aspectos culturales, organizativos, con las personas en definitiva.

Haiek egin zuten, zeuk ere ahal duzu Si ellas pudieron, tú también puedes

Alde batean markak daude. Bestean ETEak. Egileak enpresei erakutsi nahi die merkatuaren konfiantza eskuratzeko eskura dituzten baliabiderik nagusietako bat brandinga dela.

Ellas son las grandes marcas. Al otro lado están las pymes, a quienes el autor intenta hacer ver que uno de los principales recursos que tienen a su disposición para ganar la confianza del mercado es el branding.

Juanjo Brizuela

Branding eta Komunikazioko freelance aholkularia
Consultor freelance en Branding y Comunicación
www.equiliqua.net



Horiek kontsumo marka handien gauzak dira, Coca Cola, Apple, Ikea, BMW, Dell eta horrelakoena...". Ohiko esaldia dugu hau industria zein zerbitzu arloetako ETEetan antolaera brandingari buruz hitz egiten dugunean. Baina aitortu behar dugu marka handi horiek ere behin ETEak izan zirela eta, errekonozituta dagoen balio erantsi handiko produktua edukitzeaz gain, denboraren buruan beren marka osatzen eta garatzen jakin izan dutela, beste aktibo askotan lan egiteaz gain. Ez al da hori adibide argia geuk ere gauza bera egin eta lanari ekiteko?

Marken botereaz ari gara eta, batez ere, markaren kudeaketak gure antolakundeentzat aktibo estrategiko legez dakarren balioaz. Eta areago bizi garen garaian, produktu eta zerbitzuen eskaintza merkatuek eskatzen dutena baino askoz handiagoa delako. Non dago alde beraz? Non dago gure merkatuak nahiago duen marka eta erreferentea izatea lortzeko gure estrategiak eta helburuak oinarritzeko gune "giltzarria" hori bada?

Nahiz eta errezetak bilatu, beste kasu batzuk imitatu edo besteren urratsak jarraitu, egia esan ez dago eredu bakarrik. Merkatu segmentu bakoitza, produktu/zerbitzu bakoitza hain da berezia non zaila baita denentzat balio duen araua ezartzea. Baina marka baten garapen prozesuan aurrera egin ahal izateko zenbait irizpide aipa daitezke.


Lehenengo eta behin ulertu behar da markaz hitz egitea ez dela logotipo batez hitz egitea. Horizonte zabaldu behar dugu. Ulertu behar dugu markaren balioak esan nahi duela gure antolakundeentz aldardi ukiezin baten aurrean gaudela. Logotipoak gure markak merkatuan ordezkatu behar dituen balioak eta ezaugarriak bildu behar ditu, ezagunak

Eso son cosas de las grandes marcas de consumo, de los Coca Cola, Apple, Ikea, BMW, Dell, ... ", una de las frases típicas que se escuchan cuando hablamos de branding en organizaciones como Pymes, tanto industriales como de servicios. Lo que también hemos de reconocer es que esas grandes marcas fueron en su día Pymes y que, además de tener un producto reconocible y con alto valor añadido, han sabido construir y desarrollar su marca a lo largo del tiempo, además de trabajar en otros muchos activos. ¿No es acaso suficiente ejemplo para hacerlo propio y ponernos a trabajar en ello?

Estamos hablando del poder de las marcas y sobre todo del valor que aporta la gestión de la marca como un activo estratégico para nuestras organizaciones. Y más en el tiempo en el que vivimos donde la oferta de productos y servicios es infinitamente superior a lo que los mercados demandan. ¿Dónde está pues la diferencia? ¿Dónde radica ese punto "clave" sobre el que pivotar nuestras estrategias y objetivos para lograr ser la marca preferida y referente de nuestro mercado?


Aunque se estén buscando recetas, imitar casos o seguir pautas de otros, lo cierto es que no hay un modelo único. Cada segmento de mercado, cada categoría, cada producto/servicio es tan diferenciado que es difícil establecer una regla común. Pero sí es posible apuntar una serie de criterios para poder avanzar en el proceso de desarrollo de una marca.

Primero de todo, hay que entender que hablar de marca no es lo mismo que hablar de un logotipo. Hemos de ampliar el horizonte. Tenemos que comprender que el valor



brandinga edozein enpresa
proiektu abiatzen denetik
beretik aintzat hartu behar da

el branding es algo que hay
que tener en cuenta desde el
inicio de cualquier proyecto
empresarial



eta errekonozituak izateko nahi duguna. Badakigu zergatik ezagutzen gaituzten bezeroek? Zerekin lotzen gaituzte? Inolako zalantzarik gabe erantzuten jakin beharko genukeen galdera da?

Marka soilik norbaitek interpretatzen duenean existitzen da. Bezero bat, laguntzaile bat, langile bat, erakunde bat..., azken batez, gure publikoa, harreman-puntu jakin baten bitartez harekin harremanetan jartzen denean. Marka ez da soilik eraikitzen guk antolakunde legez merkatuari kontatu nahi diogunaren bidez, igorri nahi dugun mezua bitartez. Eraikitze-prozesua norbaitek sortzen den lotura horretan zerbait interpretatzen duenean gertatzen da. Horregatik funtsezkoa da gure publikoak zer nahi duen eta zer behar duen oso ondo ulertzea, zer itxaropen bete nahi ditugun jakin eta, hortik abiatuta, gure balio proposamena "bestea" ren beharrezanekin lotu ahal izateko estrategia eta diskurtsoa eraiki. Badakigu benetan gure bezeroak eta gure merkatuak zer behar duten? Badakigu zein diren haien itxaropenak? Zer eskatzen ari diren? Edo zein bide berri bilatzen ari diren? Erantzunok osatzeko "bezeroari orientatzea" deitzen denaren maila handia behar dute. Eta "bezeroari begira" egoteak empatia maila garatzea esan nahi du, bestearen lekuan jarri eta berak egiten duen bezala "pentsatzen" ahalegintzea. Horrela haren benetako asmoak zein diren jakitea lortuko dugu. Bakarrik horrela lortuko dugu gure eskaintzaren eta bere eskariaren artean lotura izatea, markaren bidez.

Beste gai giltzarri bat markak bezeroekin harremanetan sartzeko hainbat forma dituela ulertzea da. Komunikazioa horietako bat da. Segur aski garrantzitsuenetakoa da, baina ez da inolaz ere bakarra. Mezua, gure markaren *storytellinga*, gure balioak, gure proposamena kontatzeko modua, komunikazioan darabilgun tonua, gure marka jende guztia-aren buruan kokatzen lagungarriak dira. Baina askoz gehiago da. Gure bezeroak, gainera, gure markarekin harremanetan jartzen dira produktuaren beraren bitartez, harreman pertsonaletan dugun jokabidearen bitartez, gure instalazioen bitartez... "markaren esperientzia" delakoa da. Merka-

de la marca supone reconocer que estamos ante un aspecto intangible de nuestras organizaciones. Un logotipo debe recoger los valores y atributos que queremos que nuestra marca represente en el mercado. Aquello por lo que queremos ser conocidos y especialmente reconocidos. ¿Sabemos por qué nos conocen nuestros clientes? ¿Con qué nos asocian? Es una pregunta que deberíamos saber responder sin duda alguna.

Una marca sólo existe cuando alguien la interpreta. Cuando un cliente, un colaborador, un trabajador, una institución... en definitiva, nuestros públicos, se ponen en contacto con ella a través de un determinado punto de contacto. Una marca no se construye únicamente por lo que nosotros, como organización, queremos contar al mercado. Por el mensaje que queremos dar. Este proceso de construcción se da en tanto en cuanto alguien interpreta algo en ese vínculo que se produce. De ahí que es clave, por tanto, entender y comprender muy bien qué es lo que nuestros públicos quieren, necesitan o qué expectativas queremos cubrir y, a partir de ahí, construir toda una estrategia y un discurso que permita vincular nuestra propuesta de valor con las necesidades del "otro". ¿Sabemos realmente lo que nuestro cliente, lo que nuestro mercado, necesita? ¿Cuáles son sus expectativas? ¿Qué están demandando? ¿o qué posible nuevo camino están buscando? Estas respuestas requieren de un alto grado de lo que se llama "orientación al cliente". Y "estar orientado al cliente" supone desarrollar el grado de empatía, ponernos en el lugar del otro, y tratar de "pensar" como él lo hace. De esta forma lograremos comprender sus verdaderas intenciones. Sólo de esta forma lograremos que exista un vínculo entre nuestra oferta y su demanda, a través de la marca.

Otro punto clave es comprender que la marca tiene múltiples formas de relacionarse con los clientes. La comunicación es una de ellas. Seguramente una de las más importantes pero desde luego que no es única. El mensaje, el *storytelling* de nuestra marca, nuestros valores, la forma en la que contamos nuestra propuesta, el tono de comunicación que empleamos, ayudan a posicionar nuestra marca en la mente de los públicos. Pero va mucho más allá. Nuestros clientes además se ponen en contacto con nuestra marca a través del propio producto, a través de nuestro propio comportamiento en la relación personal, a través de nuestras propias instalaciones... es lo que se llama "experiencia de marca". Si queremos que el mercado nos perciba como "innovadores" o como "marca de vanguardia", no basta con contar lo in-

ez da nahikoa, merkatuan estrategikoak,
bereizgarriak eta esanguratsuak diren
esanahietan tinko txertaturik dauden enpresa
proiektuak eraiki behar dira

no basta con tener un producto excelente, no
es suficiente, es necesario construir proyectos
empresariales que estén firmemente adheridos
a significados estratégicos, diferenciales y
relevantes en el mercado

tuak "berritzaile"tzat edo "marka aitzindari"tzat jo gaitzala nahi badugu, ez da nahikoa zein berritzaileak garen kontatzea; aldi berean gure produktuek guztiz berritzaileak eta aitzindariak izan behar dute. "Esaten duguna" "egiten duguna"rekin eta gure "jarrera"rekin batuz gure bezeroak gure markarekin duen esperientzia erabat koherentea da eta, bere formatu eta kode guztietan, igorri nahi dugun kontzeptu berdina erakusten du. Gaur egungo enpresa kudeaketaren giltzarria bereiztearen faktorea da eta koherentzia funtsezko printzipioa da jendearen buruan pertzepzio bakar eta esanguratsua lortzeko.

Eta azkenik garrantzitsua da antolaketa zer den, zer sentitzen duen eta bizitzen duen sentitzea. Horrela enpresa proiektu konpartitu baten kide sentitzen gara, haren helburu eta ikuspegiarekin konprometiturik. Nortasunaren balioa kolektibo legez, langilearen balioa markaren "enbaxadore" eta merkatuko inguru sinboliko baten kide legez edozein ETEk merkatuaren konfiantza bereganatzeko bere eskura dituen baliabiderik nagusietakoa da. Erabat globalizatuta dagoen munduan, teknologia tresnak gero eta ugariagoak direla, pertsonaren balioak funtsezko garrantzia eskuratzen du. Konfiantza, antolakundearen gardentasuna antolakundeko kolektiboaren jarreraren agertzen da, hain zuzen ere merkatuara igortzen ditugun haren ezaugarrietan oinarriturik. Eta, batez ere, pertsona berdinen arteko harremanetarako funtsezko bidea da, balioa duen proposamen baten eta merkatuaren beharrezko artean loturak ezarri nahi baitira. Zubi hau proiektuan eta proposatzen den balio-proposamenean buru-belarri sartuta dauden pertsonen arteko harremanen bidez eraikitzen bada, gure markaren pertzepzioa bestearengan guztiz eraginkorra eta arrakastatsua izango da.

Gure munduan "pertzepzioen borroka" gertatzen ari da. Mundu honetan informazioaren gehiegikeria dago eta bereizgarriaren bat bilatu behar dugu merkatuarentzat, gutxienez, alternatiba esanguratsua izateko. Ez da nahikoa. Merkatuan estrategikoak, bereizgarriak eta esanguratsuak diren esanahietan tinko txertaturik dauden enpresa proiektuak eraiki behar dira. Marka handi batzuek hasieran beren balio-proposamena esanahi hauek kontuan hartuta egin zuten eta gero produktua, zerbitzua eta antolakerari dagozkion beste aktibo estrategiko batzuk erantsi zituzten. Gaur egun liderrak dira beren merkatuetan. Hori da irakaspena. Brandingaren irakaspena. Brandingean oinarrituta gure antolakundeak etorkizun arrakastatsurantz bideratu ahal ditugu.

novadores que somos, sino que nuestros propios productos deben ser a su vez totalmente innovadores y de vanguardia. La suma de lo que "decimos" con lo que "hacemos" y con nuestro "comportamiento" hace que la experiencia que nuestro cliente tiene con nuestra marca sea absolutamente coherente y muestre, en sus diferentes formatos y códigos, el mismo concepto que queremos trasladar. La clave en la gestión empresarial de hoy es el factor de diferenciación y la coherencia es un principio clave para lograr una percepción única y relevante en la mente de los públicos.

